

Zure liburu otsandikoak,  
 Zure izkribu goitziak,  
 Euskera ederra salbatutzeko  
 Ta euskaldun-erri guztiyak,  
 Eziñ da obeak izango dira  
 Eta chit onragarriyak...  
 ¡Bedeinkatubak zure antzekoak  
 Sortzen dituzten erriyak!

JOSÉ IGNAZIO ARANA-KOAK.

---

AITA LARRAMENDIREN BIGARREN EUNKIDAN  
**OROIMENA.**

Berreun urte orain dirade  
 Jayo ziñala mundura,  
 Ama maitean sabeletikan  
 Euskal-erri on santura;  
 Zori onean azaldu ziñan  
 Gure lur bedeinkatura,  
 Oroigarriya beti izango  
 Da guretzat egun ura,  
 Agur gozo bat orain bigaltzen  
 Dizut lurretik Zerura.

FELIPE KASAL OTEGI.

---